


Gero dioenak



BEA SALABERRI
IRAKASLEA



ANTTON OLARIAGA

Urte urte porroskatzen doan erlaitzan gaindi ibili ginen kresalaz mozkortzen. Hondartzetan, oihala hedatzeko tokia aurkitzea genuen kezka, uhainetan itzulipurdika aritzea, azala uretan zimurtu arte. Kurritu genituen bortu urrunak, mendiak zein goragoka lehiatzen diren lekuak; duela zenbait urte uda betean elur eta izotz aztarnak zituzten eta gaur biluzirik eguzkitan kiskaltzen diren mendien aitzinean loriatu ginen. Han, belardi zabal eta berdeak ziren lekuetan, soro idor eta horiak dira orain bistak ematen duen bezain urrun. Anartean, Landes eta Biarnoan gaindi arto landek fresko iraun zuten, ureztaturik, usaian bezala eta auzoak pizina eraikitzen hasi ziren, baimena di-da lorturik, nahiz eta hondartzatik bi kilometrotara bizi. Hondarkinez pentsatu ordez, nahiago izan genuen zigarro bat erre ilusentiarri so, konpostagailuaren inarrotera joanik baino. Ongi pasa genuen zenbait egunez, dirua zegoeno gastatzen, norberaren xilkoaren periferiatik hara dena urrunago haizatuz, gure zerbitzuko langile prekarioen egoeraz kezkatu gabe eta alokatu genuen bizitegia ea norbaitek faltan ote zuen arrangeratu gabe. Denek bezala iragan ge-

nuen uda, betaurreko beltzak goizetik arrats soinean, bakean eta lorian.

Hori arazoa ere bada, bizi garelako aldatu gabe, urgentziarik gabe, bihar munaren axolarik gabe, bizia betiko segurtatua bagenu bezala, etorkizunaren atarian ez bagina bezala. Zergatik gara hainbeste ez-aldatzen? Zergatik ditugu gauzak egiten beti bezala, denek bezala, urgentziarik ez balitz bezala? Alta, ingurumenari begirako kezka partekatzen omen du jendeen %80k.

Urgentzia ez du nehork ukatzen baina nehor gutxi da aldatzen. Eta nago ez dugula oraindik beldurrik aski, hori dela arrazoinetarik bat ez-aldatzeko, eta ez dugula proposamenik horretarako. Segitzen dugu berdintsu, ez baita aipu eta proposamen serioarik egiten. Eginak zaizkigun informazio saioetan, baita proposatuak zaizkigun fikzio eta denbora pasa guzietan ere, irudi katastrofistak agertzen zaizkigu, dena sute eta gosete, gertatu arau, eta horien amaiera gisa jendartearen suntsiketa baizik ez da aipu. Aldiz, aipu baikor eta pedagogia gutxi ikusten ditugu aldaketaren alde.

Squid Game seriearen haritik zapartatu ziren zapata xurien salmentak baita modaz pasatu kirol jantzi itsusie-

na ere. Brad Pittek kafea (kapsula kutsagarritan ekoitzia) edaten duenean, markaren salmenta eta kafe kontsumoa emendatzen da %20 urtebete barne. Zer gerta daiteke horrelako serie edo publizitate batek bizi eredu berri baten aipua eginen balu? Konpostagailuen erabilpena agertuko balitz bideo jokoetan, edo uraren berrerabilpen sistemak gauza arrunt gisa integratuko balira Netflixen? Zein ondorio luke Tom Cruise ikusteak gobernuen eta lobbyen planak deuseztatzen, megabusiness delakoen kontrako borroka batean murgildurik? Ez ote luke onura gehiago eszenario negargarriak plaza-ratzeak baino, trantsizioa seriozki abiatu duen herri bat aurkezteak? Frantses gobernua ingurumenaren eta bizi eredu berrien aldeko mugimenduak kriminalizatzea baino, ez ote lituzke ahots horiek integratu beharko?

Beti biharko uzten dira jada atzokoak diren erronkak eta alertak gutxiesten. Beraz, nola asmatuko du norberak zein den garatu behar duen eredu, erakusten bazaio dena den paretaren kontra goazela, altxatzen direnak gaizkileak direla eta bizi kalitatea kontsumoaren indizeak badu markatzen? ●